

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

2000
APIRILA
39 zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:
Olatz Pagaldai
aktore ofizioa ikasten

Erreportaia:
Tortolis ludoteka atea
zabaltzeko prest

Eskoriatzarrok munduan:
Alex Ezpeleta Australian



Ludoteka, bai esan?

30 urte bezeroa zerbitzatzen

1970 **30** 2000
Urteurrena



ZELAIMA
OÑATI



Sukaldeak

... urte askotan goza ditzazun pentsatuta.

... granito eta silestonezko gainak.

... instalakuntza profesionala, akabera bikainak.

... etxetresna elektrikoen ekipamendu osoa.

... norberari egokitutako sukaldeen proiektu eta diseinuak.

... erreforma integralak gure enpresako langileek eginak obrak lehenbailehen bukatzeko.

eta Bainuak

... zure bizi-estiloarekin bat datozenak.

... aukera handia komun eta bainuko altzarietan.

... leku txikietan prestazio handiak eskaintzen dituzten hidromasajerako bainerak.

... bainuko kabinak eta manparak.

... txorrotak eta bainuko osagarriak.



Erakusketa:

Santa Marina, 3 - Telefonoa: 943 71 62 81 - OÑATI (Gipuzkoa)

MULTIZINEEN PAGOTSA

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkarte

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Imanol Garmendia
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano

KOLABORATZAILEAK:
Aitor Urrutia
Aitor Uribe Etxebarria
Iñaki Agiriano
JJ. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez

PUBLIZITATEA:
Oier Garai
Miren Lezeta
INPRIMATEGIA:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:
2.000 ale

LEGE GORDAILUA:
SS - 200/99

ISSN:
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA




GATZAGA



Gipuzkoako Foru
Aldundiaren
Laguntza



Eskoriatza eta Gatzagako
Udalek diruz lagunduta



Zinearen hastapenetan, Parisko areto bateko jendeak tren bat ziztu bizian eurengana zetorrela ikusi zuenean, izututa alde egin zuen aretotik. Jendeak ez zuen jakin errealtatea eta fikzioa zena bereizten, gerora ikasi bazuten ere. Dena den, zinearen existentzia leku eta momentu guztietan ez da berdin hartua izan. Hala, herri txiki askotako zinemek atak itxi behar izan dituzte, Eskoriatzan ere halaxe gertatu zen.

Gaur egun, ordea, hiriburuetako multizineek sekulako arrakasta daukate. Are gehiago orain, Oscarrak banatu berritan, pelikula arrakastatsuak behin eta berriz botatzen ari baitira. Hauetako askok hilabeteak daramatzate karteletan. Baina tira, aurren behintzat, sari preziatua lortu duten zenbaitek merezi du ikustea: Amerikan Beauty, Todo sobre mi madre eta Las normas de la casa de la sidra, esaterako, estilo amerikarretik dexente urruntzen diren pelikulak iruditu zaizkit. Dena den, horrelako pelikulak ikusteagatik sarri egin behar izaten ditugun komeriak hartu nahi nituzke hizpide oraingoan.

Askotan odisea bat bihurtzen da filme bat ikusi nahi baina ezina. Botatzen dituzten pelikuletatik, agian, bat edo bi izango dira ikustea merezi dutenak. Filme batek ikustea merezi duen ala ez erabakitzeke izaten ditugun irizpideak, noski, subjetoak dira eta ez gustuengatik bakarrik baita, zinemara joateateko erabakia hartzera bultzatzen gaituzten arrazoiak ere. Horrela, zinemara entretenitzera joaten

denak edo eta, pelikula on bat ikusteko desioz joaten denak, printzipioz, filme bati ez diote berdin exijituko. Aukera berdinarean aurrean, entretenimendua bilatzen duena errazago konformatuko da, filme on bat ikustea bilatzen duen hura baino. Baina, eta zer gertatzen da fulanitik gomendatu digun filme mundial hura ikusi nahi dugunean?

Sarritan gertatu izan zaigu, multizinerira iritxi eta sekulako jende iladarekin topo egin beharra. Guztiak, gure filmea ikustera etorri badira, akabo! Takilan gaudenerako gure filmearen aretoak argi gorria izango du eta, beraz, agur filmea ikusteko genituen aukerak! Genituen asmoak zapuzturik, zer egin orain? Gehienetan, amore eman eta aldameneko filme kaxkarra ikusteko tiketak erosten ditugu.

Baina okerreza zera da: hurrengo astebukaeran berriz bueltatuko garela fulanitori hainbeste gustatu zitzaion filmea ikustera eta, behingoz, lortuko badugu, gaitzerdi. Zoritxarrez, filmea ikusteagatik bi aldiz ordaindu behar izate hau nahiko tipiko egin zaigu. Horrela, izango ez dute bada multizineek sekulako pagotsa!

Honen guztiaren haritik eta nire gogoeta honekin bukatzeko beste zehaztasun bat egin nahi nuke: gure bailaran multizineak bezalako formula arrakastatsurik ez dugula aintzat hartuz, etorkizun ez hain urrun batean, Eskoriatzan egin dezaketzen zinematik antzeko formula izan lezake. Nire ustez, areto bakarra izateak baino, joku ge-hiago ematen du aukera anitzetarako atak zabalik dituen formula honek, hala nola: Hollywoodeko kontsumorako filme horiez gain, filme independientek, orijinalagoak direnak ere promozio-natzeko aukera izango litzatekeela eta baita, bide batez, euskal zinemagintza bera ere. Gainera, areto txiki horiek ezin aproposagoak dira filme laburren maratoiak antolatzeke ere. Ideia hauekin guztiekin bota dut nik hordagoa, beraz, karta hauekin jokatzen dakienak aukera du jokoarekin ja-rraitzeko.

Lorea Agiriano

ATZEGIK 40. URTEURRENA BETEZEN DU AURTEN

Urteurrena ospatzeko bazkari bat egingo da Eskoriatzan, maiatzaren 6an Atzegiko bazkide, familiarteko eta lagunak biltzeko asmoz

Atzegi, Gipuzkoako atzeratuen elkarte, bete betean murgilduta dago urteroko kanpainan. Aurten elkarte honek atzeratuek beste edonork bezala gizartearen leku bat merezi dutela aldarrikatzen du lema honen bitartez: "Eta zu, ez al zara atzegizalea?" Azken batean, gure artean bizitzeko, gure seme alabekin ikasteko edo gure auzoan bizitzeko eskubidea onartzen dieten pertsonak dira atzegizaleak eta pertsona horien inplikazioa lortu nahi da, adimen urritasuna duten pertsonak dituzten zailtasunetan laguntzeko.

na ospaten duela eta, Atzegik Deba Goienean bizi diren bazkide, familiarteko eta lagunak bildu nahi ditu maiatzaren 6an Eskoriatzako frontoian egingo den bazkarian. Eguerdiko 2'30etan izango da bazkari hau eta 170 pertsonentzat egongo da lekua. Bazkal aurretik herriko plazan harrera egingo da trikitilariekin eta bazkal osteko dantzaldian oroigarriak emango zaizkie atzeratuei berrogei urteko ibilbide honetan landu duten batasunaren seinale. Sarrerak eskuratzeko Atzegiko kideekin harremanetan jarri.

Bestaldè, aurten bere 40.urteurre-

Zer espero dute zugandik?

Laguntza, horren beharra dutela ikusten duzunean. Gutako bakoitzak horien atzegizalea izan behar du: autobusean, zinean, lanean, auzoan, supermerkatuan.

Atzegik, zu horien atzegizalea izatea nahi du. Laguntzeko prest bazaude eta informazioa jaso nahi baduzu, deitu telefono honetara:

943 423942

Eskerrik asko

LABURREAN

Unai Iñurategik irabazi egin zuen bere debutean

Espero baina azkarrago, joan zen hilaren 8an ospatu zen Eskoriatzako frontoian Unai Iñurategiren debuta profesional mailan. Etxaniz II eta Iñurategi III osatutako bikoteak 22 eta 14 irabazi zuen.

Badiola III eta Otaegi izan ziren gaueko lehen partida jokatu zutenak lau terdiaren barruan. Badiola irten zen irabazle 22 eta 19.

Bigarren partiduan, haserako txanpan urdinak aurreratzea lortu zuten, baina Haritz eta Gastesik partidari sartzea lortu eta oso berdindua mantendu zuten nehurketa danbora askoan. Partidak bigarren erdian sartuta baina, Etxaniz azkoitiar aurrelari tikiak ausart jokatu zuen, behin baina gehiagotan Haritzen sakea airez moztuz, eta Unai atzean emandako segurtasunarekin, pixkanaka markagailuan aurrera eginez.

Zorionak bada Etxaniz eta Iñurategiri!

carpinteria
leniz

AROSZTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

ANGEL
Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...


Arana, 19 Behea • Tf. 943 715203

ESKORIATZA



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba Ibilbidea, 17
Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

Goiena Komunikazio Koop, sortu da



Sinadura ekitaldian egon ginekok Otorako jauregiaren atarian.

Joan den marxtoaren 31an egin zen Otoran Goiena Komunikazio Kooperatiba sortzeko beharrezko den sinadura ekitaldia.

Ekitaldian Deba Goieneko euskara elkarte eta komunikabideetako ordezkariok egon ginen.

Maiatzean beraz kooperatiba sortua izango da eta lanerako ordua etorriko da. Hasteko, bailarako telebista, Goitb, jarriko da martxan

eta gero etorriko dira gainontzeko zerbitzuak..

Maiatzaren bukaera alderako aurikusita daude Goiena Telebistako lehenengo emisioak. Hasiara batean Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako herritarrek ikusi ahal izango dute eta geroxeago Bergara, Antzuola, Oñati eta Elgeta batzeko asmoa dago.

Aldaketak Teleskon

Eskoriatzako herri telebistan berrikuntzak igertzen hasiko gara laister, izan ere, herri komunikabide hau zuzentzen duen Fundazioak, Teleskoren ibilbideari finkotasun bat eman asmoz eta etorkizunean herri telebistaren iraupena segurtatu asmoz erabaki garrantzitsuak artu berri ditu. Arlo teknikoari dagokionean teledistribuzio sarean zaharrituta zeuden hainbat elementu berrizteko inbertsio handiak onartu eta gero, aurpegiak berrizteko ordua iritxi da. Orain arte Teleskon aurkezleei dagokionean egon den finkotasun eza betetzeko helburuaz, Apirilean zenbait proba egin ziren teleskoko aurpegi berria izango dena aukeratzeko; eta Iñigo Biain oñatiarra izango da postu hori beteko duena. Asko izan dira gure herri telebistan aurkezle lanetan aritutakoak, baina hau izango da Teleskoko plantila barruan kazetari bat izango den lehen aldia, eta hemendik aurrera, bera arduratuko da Teleskon zabalduko diren albiste eta bestelakoak bilatu, idatzi eta aurkezteaz. Hau Iñigorentzat telebistan lan egiten duen lehen aldia izango den arren, lehenago hainbat egunkari, aldizkari eta faninetan aritutakoa dugu bera, Ze Barri? ko irakurleontzat ere ezagun duzue, 98ko azken hilabeteetan ere gurean ibili bait zen lanean.

Debagoieneko komunikazio enpresa batek
ZUZENDARI KOMERTZIALA
behar du

Enpresaren diru sarreren ardurua osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:


- Sormena eta antolaketarako gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE



Iñigo Biain oñatiarra, Teleskoko aurpegi berria

Maiatza ekintzaz lepo eginda

Gazte astea, Ingurugiro astea, Haurren eguna, antzerkiak...

Eskoriatzako Udalak, Gazte Asanbladak eta beste zenbait taldek egin dute aurtengo Maiatzeko egutegia ekintzaz bete-bete egiteko. Irakurtzen ari zaren Ze Barri? hau kaleratu orduko, adibidez, martxan egongo da **Eskoriatzako Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Astea hilaren 2tik 7ra bitartean**. Aste honi amaiera emango dion jaia, **Aitzorrotz Eguneke Akelarrea** izango da. Ekintza hau izan zen orain urtebete sortu berri zela EGASek antolatu zuen lehenengoa, eta aurten giro polita segurtatua egongo da musika, ipuin kontalari eta umore onarekin.

Gazte Asteari Udaletxeko Ingurugiro Batzordeak antolatutako **Ingurugiro Asteak** emango dio erreleboa, eta honen barruan ere, **hainbat hitzaldi emango dira**, sortzen ditugun ondakinaren tratamendua, garapena eta azpiegitura erraldoiek(AHT, autopistak, superportuak..) duten erlazioa, janari transgenikoak eta beste

hainbat gai jorratuaz. **Kultur Etxean eta Unibertsitate berriko hitzaldi aretoan** emango dira hitzaldiok. Azpimarratzekoa de baita, hilaren 14ean egingo den **mendi irteera**, inguruko erreka eta mendiak garbitzeko egingo dena.

Bestalde, hilaren 21ean ere, **Haurren Eguna** Ospatuko da Eskoriatzan. Domeka hortan, Deba Goiena osoko dantza taldetako kide gazteenak herrian bilduko dira.

Ezin aipatu gabe hutzi ere hile bukaeran izango diren **antzerki taldeen ikuskizunak!** Hilaren 26an, Alcazar tabernan "La Patro" antzerki taldearen eskutik "Lecci'on de Orgasmo" lana ikusi ahal izango dugu, eta haurrentzako bereziki, "Antzekizuna" txontxongilo taldearen eskutik: Pinotxo "Benetako umea? Horixe izan nahi dut nik" lana ere eskeiniko da hilaren 31ean.

Heldu da aurten ere Aitzorrotzeko eguna

Aurten ere ate joka dugu Aitzorrotzeko eguna, urtero bezala, maiatzeko lehen igandean ospatuko baita eskoriatzarren artean hain eza-guna den jaia. Gainera, iaz hasitako bideari jarraiki, aurten ere jaia egun osokoa izateko ohitura zaharra berreskuratuko da berriz ere. Goizgoizetik hasiko dira ekitaldiak, 8:30etan joko baitute diana herriko txistulariek. Ostean, 9:30etan, Aitzorrotzera igoera hasiko da herriko plazatik irtenda. Aitzorrotzera heldutakoan, mezetara joateko aukera izango dute hala nahi dutenek 11:30etan. Meza bukatutakoan berriz, bertsolari eta trikitilarien txanda izango da. Era berean, urtero bezala Aitzorrotzen taberna jarriko dela gogoratu behar da. Aurtengoan, Atxorrotz Eskoriatzako Gobernuz Kanpoko Erakundearentzat eta Herriko Atzeratuen Elkartearentzat izango da bertan jasotako dirua.

Behin bazkalordua iritsitakoan, Aitzorrotzen bertan bildots errea, gazta eta kafea dastatzeko aukera izango da. Joan nahi dutenek, 10 egun lehenagotik izango dituzte salgai bazkarirako txartelak ohizko lekuetan. Bapo bazkaldu ostean, herrira bueltatzeko ordua iritsiko da, arratsalde partean tortila lehiaketa izango baita herriko plazan. Aurtengoan Eskoriatzako Udalak, Apotzako Bertsolari taldeak, Jose Arana Almen Ikastolak eta Atxorrotz Gobernuz Kanpoko Erakundea izan dira Aitzorrotzeko egunaren antolatzaileak.



Gazte Asanbladak (EGAS) antolatutako azken irteeran autobus bete gazte joan zen Oyarbide sagardotegira. Gosea egiteko, autobusa kunetatik bultzaka atera behar izan zuten gainera.

**MIRENTXU
TABERNA**

Tfnoa.: 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

**TOKI ALAI
Taberna**

Tfnoa.: 943 714729

**KARAJILOETAN ESPE-
ZIALIZATUA**

**GOLO
gazte moda**

Tel.. 943 71 45 61

**VILLAR
APAINDEGIA**

Tfnoa.: 943 715042

OLATZ PAGALAI

Aktore karrera egiten

Getxoko Antzerki Eskolan ari da ikasketak egiten eta aurten izan dugu jada, euskaltegietako publizitatea eginaz telebistan ikusteko aukera.

Apirilean antzeztu dute antzoki zahar bat gai hartuta kurtso honetako antzerki lana.

- Zer da ikasten ari zarena?

-Getxoko Antzerki Eskolan nabil.

- Zenbat urte dira eta zenbatgarrenean ari zara?

-Lau urte dira eta ni hirugarrenean nabil.

- Zergatik hasi zinen hori ikasten?

-Hasiera batean katxondeoa izan zen dena.

-Ez. Bi urtetik behin soilik.

- Antzerkia edota zinema duzu nahiago?

-Dudarik gabe, antzerkia nahiago dut.

- Eskolakoaz aparte, beste ezer egin al duzu?

-Anuntzio pare bat; Gabonetako parkeetan animatzaile gisa egon; haurrentzat, zorion festetan, pailazo lanak...

-Gauza bakoitzean eta aldi bakoitzean zerbait berria. Antzerkia ikaste kostantea da, beti dago zerbait ikasteko.

- Karrera berezia izanik, nola hartu zuten etxean?

-Nire erabakia errespetatzen dute.

- Zer gomendatuko

“Antzerkia ikaste kostantea da, beti dago zerbait ikasteko.”

Gero selektibitateak nota jeitsi zidan eta ezin izan nintzen Arte Ederretan sartu eta antzerki eskolan bukatu nuen.

- Urtero egiten al duzue antzezlanen bat?



- Zein arlotan lan egiteko asmoa daukazu edota nahiko zenuke?

-Antzerkian, berdin zait zein generotan.

- Zer aportatzen dizu antzezteak?

zenioke aktore edo aktorea izan nahi duen pertsona bati?

-Lan gogor egiteko prest egotea eta disfrutatzea.



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

Txalaparta
Jatetxea

Tel.- 943- 71 50 46

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura

RELE

Faustino Legazpia

Tel. 943 71 40 72

TORTOLIS LUDOTEKA, maiatzetik aurrera martxan

Maiatzaren 2an zabalduko da Tortolis ludoteka Gorosarri plaza gainean dagoen lokal batean. Ludoteka 3 -12 urte bitarteko haurrentzako izango da eta astelehenetik ostiralera egongo da zabalik arratsaldeko 5'etatik 8'etara. Maiatzaren 2an hasi eta aste betean ikastetxeek izango dute taldeka ludoteka ezagutzuz joateko aukera eta hurrengo astetik aurrera berriz herrira zabalik egongo

Ludotekaren berri jakiteko bere kargu egingo diren Maider Herze eta Edurne Uribealagorekin egon gara.

- Azkenean heldu da ludoteka zabaltzeko eguna, baina nola izan da ludoteka martxan jartzeko prozesua? Ze zailtasun izan dituzue?

-Ludoteka zabaltzeko ideia orain 2 urte sortu zitzaigun Axtroki Kultur Elkartean. Bageneukan buruan gazteentzako zerbait egitea, Ihortziri aisialdi taldea desagertu zenetik esparru hau hutsik gelditu baitzen Eskoriatzan. Gazte talde honek zapaturo egindako lana oso ona iruditu zitzaigun gainera. Hasieran beraz, aisialdi taldea berriz bultzatzea bururatu zitzaigun, baina bailarako beste esperientzia batzuk aztertu genituenean, momentuan geneukan baliabideekin ludoteka bat zabaltzeko proiektua interesgarriagoa iruditu zitzaigun. Horrela, hasiera baten Aretxabaletan Loramendik daukan ludoteka eredu moduan hartuta Udaletxean proiektu bat aurkeztu genuen. Udalean harrera ona eduki zuen hasieratik.

Proiektua martxan jartzeko orduan ordea, zalantzak genituen nola bideratu ganoraz fun-tzionatuko zuen ludoteka gogoan eduki behar baita Eskoriatzan aurretik ere beste bi ahalegin egon direla epe motzean desagertu zirenak, eta guk oraingoan iraungo zuen zerbait nahi genuen. Orduan bururatu zitzaigun Arrasateko Txatxilipurdi taldearekin kontaktuan jartzea. Txatxilipurdik urteak daramatza

haurrentzako ekintzak antolatzen bai Arrasaten eta baita beste herri batzuetakoak bultzatzen ere, Oñatin eta Gatzagan adibidez. Orain arteko bidea Txatxilipurdiren eskutik egin dugu eta gure ustez erabaki oso ona izan zen, haurren mundu hau ondo ezagutzen dutela erakutsi bait digute eta ludoteka oinarri sendo batzurekin sortzeko balio izan duela pentsatzen dugu.

- Zer eskainiko die ludotekak herriko haurrei?

-Aisialdi txoko bat, herriko haur denak elkartzeko aukera emango duena eta bertan hainbat ekintza ezberdin egitea, adibidez: eskulan ezberdinak, txokoetan errealitate



Maider Herze eta Edurne Uribealago, ludotekako arduradunak

Autos Muru S.L.
Araba Etorbidea, 3
20500 ARRASATE
Tfnoa. 943 792716

MURU **AUTO KONPONKETAK**
Motorren konponketa eta salmenta

ZERBITZU OFIZIALA:

HONDA YAMAHA PIAGGIO
GILERA PEUGEOT RIEJU

Pub ALDATZ
Tfnoa.: 943 714171
Musika ona entzun dezazun

ezberdinekin disfrutatzeko aukera eta bestela eskura ezinak diren jolasak ere bai.

Haurrek euskaraz jolaz eta elkar ezagutzeko aukera izango dute eta kalitatezko aisialdi bat eskeiniko zaie.

- Zein izango da zuen lan egiteko era?

-Bi taldetan banatuko da eguna: 5etatik 6'30etara 3-7 urteko haurrak egongo dira eta 6'30etatik 8etara 7-12 urte bitartekoak.

Ludotekan hainbat txoko ditugu:

- Tortolis denda txokoa
- Sukaldea
- Liburutegi eta musika txokoa
- Taller txokoa
- Eraikuntza txokoa
- Mahai jolasak eta marrazki txokoa

Honetaz aparte beste ekintza klase batzuk ere egingo ditugu: antzerkia, bideo emanaldia, ipuin kontaketa, dantza, kanpo jolasak (jokei, malabarrak, saskibaloia, beisbola...) eta ekintza hauetarako herriko jendearen laguntza bilatzen ahaleginduko gara.

- Zein gogokin hasi duzue lan hau?

-Hasieran ilusio haundiarekin, gero 6 hilabeteko geldiene bat egon da lokalaren obrak bukatu diren artean eta apur bat moteldu ere egin gara, baina orain berriz, zabaltzeko ueña iritsi denean ilusioa berpiztu zaigu. Gogotsu ari gara detaile guztiak prestatzen.

- Nondik dator Tortolis izena?

-Tortolisa jolas zahar bat da, lehen asko jolasten zena eta orain galtzen


ari dena eta egokia iruditu zitzaigun izena jolas leku bati jartzeko.

- Tortolis izena aipatuta, ba al duzue asmorik galtzear dauden jolasak berreskuratze aldera lan egiteko?

-Bai, ahal dugun neurrian ahaleginduko gara horretan ere. Gaur egungo bideo jolas eta interneti alternatibak eskaintzen ahaleginduko gara.

- Zein da zuen lana?

-Ahal den neurrian haurren gidari izatea. Iniziatiba ezberdinak bultzatzea eta giro egoki bat sortuz euren arteko harremanak erraztea. Joku eta ekintza desberdinen



Irudian, tortolis denda, ludotekan dauden txokoetariko bat.

artean aholkatzea eta haurren por-

Ludotekaren funtzionamentua

Ludotekak eskoletako egutegia jarraituko duenez ikasturtea irailetik uztaiera bitartekoa izango da. Ikasturte osorako kuota 4.500 pzta izango da. Aurten berriz ikasturtea amaitzear dagoenez, maiatza eta uztaiera bitartean 500 pzta ordaindu beharko da bakarrik.

Bazkide egiteko, fitxa bat bete, Euskadiko Kutzaren 044.0.01669.6 kontuan 500 pzta sartu eta agiria ludotekan entregatu behar da karneterako 2 argazkirekin batera.

Bazkideen eskubide eta betebeharrak:

- n Ludotekakoa den material guztia erabili ahal izango du.
- n Ludotekak antolatutako ekintza guztietan parte hartu ahal izango du.
- n Ludotekak istripu aseguruia eta ardura zibila izango du
- n Ludotekako barne arautegia errespetatu beharko du.
- n Materiala zaindu., bertan ezin da jan etab...
- n Ludotekak urtean urteko ezartzen duen kuota ordaindu beharko du.
- n Gurasoei dagokienez, ezingo dira ludotekara sartu eta kontutan eduki beharko dute euren haurrei denbora tarte bat eman beharko dietela ateratakoa jaso dezaten.

egizabal oinetakoa



ARRASATE - Olarte, 14 - Tf. 943 79 66 01
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 76 12 28

LIZARRALDE
KIROLAK

Foruen Plaza, 1-2. San Andres - **Arrasate** - Tf. 943 79 91 47
Olakua, 16 - **Oñati** - Tf. 943 78 29 86

AUSTRALIA EKIALDEA: Surfer eta bidaiazaleen Meca

Euskal Herritik zuzen beherantza zulo bat egiten hasiz gero, Australian irtengo ginela uste genuen askok txikitan. Abuztuko oporrek ez dute hainbesteko zuloa egiteko denbora ematen, beraz, Alex Ezpeletak hegazkina hartu behar izan zuen, kristo guztiak bezala, munduko beste aldean zer dagoen ikusteko. Eta berak kontatu digunez, han jendea normal-normal ibiltzen omen da kaletik, eta ez buruz behera, txikitan mundua marrazten genuenean jartzen ge-nituen bezala. Hori eta beste hainbat gauza ere deskubritu zituen Alexek ihazko udan Sidneyn lurreratu zenean.



Hala ere, bidaiaren hasiera ez zen batere gozoa izan, ia hogeitalau orduko bidai luzearen buruan, Alex Australian zen, baina bere maletak Bilbo, Londres, Kuala Lumpur eta Sidney arteko punturen batean zeuden galduta. Hogei egun inguruko bidaiasteko modurik onena ez zen izan, baina bere ekipaiaren zain zegoen bitartean, Australiako Ekialdeko kostako hiririk haundi eta garatuena ezagutu ahal izan zuen. Ostatu bezela bertara joaten den bidaiari askok lez, "Youth hostel" (gazteentzako alberge) batean lekua hartu ondoren, Sidneyk duen ikusgarritasun eta kolore aniztasunean murgildu zen.

Hiri lasai, garbi eta polita da Sidney, Australia modernoaren ispilu. Bere kaleetan inor ez da arrotz sentitzen; <<oso nazio gaztea da Australia, bertan bizi direnak ere ez dira bertako sentitzen, eta oso irekia da kanpotik dato-rrenarekin>>. Hau da bertan Alexek jaso zuen lehen inpresioa. Turista europearrak bertara lan egiten joandako ekialde urruneko etorkinekin nahasten dira; derrigorrezko bixita dira Operaren etxea, zubia, etxeorratzen hauzunea, Aquarima (tiburoi zuri eta guzti), Lorategi Botaniko ikusgarria, ehundaka espezie bitxi eta preziatuekin, eta kaleko bizitza, Chinatown, King Cross, Oxford Street, gay komunitate eta gautxorien zona, edo poteatzeko lasaiagoa den The Rocks...

Bizitza merkea da Australian, etxebizitza bat edukitzea edozeinen esku dago, lana ugari eta ongi ordaindua dago... Horrek bertara hur-bildutako askok bizileku gisa hau-tatzea ekarri du. Bertako gazteak ere oso azkar alde egiten dute kabitik, eta beren lagunekin joaten dira bizitzera. "Youth hostel"ean italiar, estatu-batuar, irlandar, kanadar, eskoziar... leku guztietako jendearekin egin zuen topo... Tabernara joan, eta bere ingelesik oberenerakin garagardo bat eskatzera joan zenean ere ("one pint, please") -"Tu por lo meno tiene que ze español"-erantzun omen zion kamarerak,

Sevillakoa izaki. Bertan ezagutu zuen baita Angelo Piazenza milandarra. Azke-nean, maletak ere iritxi ziren Sidneyra, eta biak elkarrekin surfaren paradi-surantz jo zuten, iparraldera, Bayron Bayra.

Bayron Bay, surflarien paradisua

Desertuko berotasunetik urrun eta klima ia tropikal batek erakarrita, Australiako Ekialdeko kostan bizi da nazio honetako jende kopuru han-diena, eta Bayron Bay da kostalde horretako hiririk interesgarrienetako bat.: Californiar estiloko etxeak, hondartza luze eta lauak, eta nola ez, surflariak nonnahi. Eta inolako konpleju barik, bi taula eta neoprenezko jantziak alokatu, eta hortxe joan ziren Angelo eta Alex, nahiko potrosoa zirudien irakasle baten lezioa ikasteko prest, portzierto, ikastaroa irakasle gabe bukatu zuten. <<Esperientzia gogorra da surfean ikastea- dio Alexek- kriston zartadak hartzen dira eta lur jota bukatzen genuen. Baina, bueno, lortzen nuen hogeï bat metro jausi barik egitea>>.

Hala ere, dena ez zen "sufritzea" bakarrik. Bayron Bayko Youth Hostelean ezagutu zuten neska kanadiar batek piraguak hartu eta arra-tsaldean itsasora irteteko gomendioa egin zien eta gomendio ona izan zen: eguzkia jartzen zenean, izurdeek beraiekin batera



Argazkian Alex White Sundaysen snorkle-la egiten. Ozeano Bareko kostaldean, espezierik bitxiak aurki daitezke uretan: itsas dordokak, marrazoak, arrain koloretsuak, aletadun turistak...

egiten zuten salto, olatuekin jolasean, beren buru gainetik hegan eginez.

Iparralderago Freezer uharteak daude eta bertara jo zuten Alex eta Angelok. Landaretza izugarri aberatsa da irla hauetan eta beraien erdian ur gezazko lakuak dituzte eta baita errekek ere. Irla hauetako batzuetan kanpamenduak daude jarrita eta autobusak, errepiderik ezean, hondartzetan ibiltzen dira turistak eramanez.

Eta azkenik, White Sundaysera heldu ziren, koralezko barrera handia, ozeano barean zehar ehundaka kilometroz luzatzen den uharri bizia hasten den lekura. Oso ezaguna da toki hau duen itsaspeko bizitza dela eta. Bayron

Bay surflarien meka bada, hau urpekariena da eta hemen ere beste ikastaro bat egin zuen Alexek, urpera betaurreko bonbona eta aleta eta guzti sartuaz; eta esperientzia honek ere merezi omen du: <<monitoreak bada ez bada urpeko ezer ez ikutzeko esan zigun, pozoitsuak diren izaki asko dagoelako, baina, denetik ikus zitekeeen bertan: urpeko dordokak, kolo-rezko arrainak, metro t'erdira heltzen diren Napoleon arrai-nak...>>. White Sundays irlak (70 bat guztira) ezagutzeko katamaran batean bidaiatzea egin eta bidean ezagututako lagunekin beste juergatxo bat bota ondoren, "domestic fly" bat hartu eta Sidneyrantz bueltatu behar izan zuen; bidaiaria bukatzearen. Hala ere, izan zuen denbora oraindik, Sidneytik ehun bat kilometrorra dauden Blue Mountainseko parkea ezagutzeko.

<<Azkenengo egunetan egindako lagunek, etxera buel-tatu beharrean bertan gelditzeko esaten zidaten. Lanera joan beharra nuela esan banien ere, lantegira deitu eta oporrak luzatzen nituela esateko eran-tzuten zidaten >>. Alexi egindako bidaiatik ze konklusio ateratu duen galdetuta, hauxe esan digu: <<oso mentalidade ezberdina dute Australian bizi direnek; ez dute obligaziorik ez eta inolako loturarik ere, bizi egiten dira eta beharra dutenean egiten dute lan>>. Bizitzeko lan egitea edo lan egiteko bizitzea, ezberdintasun handia dago bien artean.



Alexek Angelo Piazenza milandarrarekin egin zituen bidaiako egun gehienak. Atzean daukatena, Freezer irletan dauden ur gezazko lakuetako bat.

Errentako deklarazioa egiten duzu? Azken momenturako uzten al duzu?




**MARI CARMEN
ARRIETA**

Guk deklarazioa etxean egiten dugu eta ahal den azkarren egiten dugu.



**JASONE
BARANDIARAN**

Guk kutxan egiten dugu papelak ematen dizkigutenean. Kobratzeko bada aguro eta ordaintzeko bada beranduxeago.




IOSEBA LARZABAL

Ihes deklarazioa Caja Laboralean egin nuen eta papelak ematen dizkidatenean egiten dut.



NIEVES GALDOS

Deklarazioa nire koinatuak egiten dit eta normalean azkenengo momenturako uzten dut.



ION ERRASTI

Deklarazioa egin beharra dagoenez egiten dut baina andreari agintzen diot nik ez bait dut ideiarik ere.



MERTXE GOROSTIZA

Deklarazioa Caja Laboralean egiten dut papel guztiak lortzerakoan azken momenturako utzi gabe.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

EMAKUME EGUNA PASA BADA ERE...

Sexu eta generu kontzeptuak, Seremu askotan nahastuak izan diren kontzeptuak ditugu. Aldiz, ez dira inola ere berdinak. Batetik, emakumeak eta gizonak ezberdintzen dituzten gorputz ezaugarriak daude: SEXUA. Bestetik, bai emakumeei eta bai gizonei modu ezberdinean esleitzen zaizkien atribuzio kultural, psikologiko, ekonomiko, judizial edo sozialak: GENERUA. Ezaugarri sexualak karaktere natural eta biologiko bat duten bitartean, genero bakoitzaren berezitasunak, ikasiak eta historikoak dira. Kontzeptu bi hauen arteko nahasketa bai gizon eta bai emakumeentzat estereotipo eta limitazio sorburu izan da baldin eta kulturaliki, ikasiak diren baldintza anitz sexuari legozkiokeenak bezela esleituak izan dira. Eta....zeintzuk izango lirakeke gure kulturak emakume generoaren identitatea definitzeko erabili dituen ezaugarriak?

A M A T A S U N A : Emakumearengan eta emakume izanagatik (sexu-identitatea) amatasuna edota besteen zaintzaren desioa, nukleo zentralizat hartua izan da urteetan zehar. Bide batez rola eta funtzioak baldintzatuz.

INHIBIZIO SEXUALA:

Emakumearen gorputzak ugalketara mugatzen den kontextuan soilik hartzen du garrantzia. Emakume tradizionala ez da bere gorputzaren jabe (kontextu historiko-kulturalan) ezta ugalketatik banandurik dagoen sexualitatera legitimatua dagoen pertsona.



S U B O R D I N A Z I O A : Tradizionaliki emakumeek ez dute posible izan botere espazioetan edo erabaki-hartze espazioetan partehartzea. Erabaki-hartze, kontrol, juzku edo besteei barkatzea bezelako gaitasunak gizonezkoei zegozkien gaiak zirela kontsideratu izan da.

Lehen aipatu bezela, generu identitatea, momentu historiko

konkretu batean emakume edo gizon izateari buruz dugun kontzepzio kultural, egoera sozial eta norbere bizi-esperientziaren arabera gorputzen da. Azken urteotan eta duda gabe, berdintasunaren eremuan egin diren aurrerapen sozialak oso esanguratsuak izan dira. Eremu ezberdinetan (laborala, formakuntza, legislatibo...) sortutako aldaketek, generu-identitate kolektiboaren eboluzioa erraztu dute. Aldiz, guztiok jakin badakigu barnealdaketak ez direla horren errazak eta arinak. Generu-identitate berri bat barneratzea ez da, ez modu kolektiboan ez modu indibidualean, lan erraza. Motela den prozesu progresiboa da. Emakume izatearen modu berriek (amatasun modelutik/eredutik aldentuta) traizio edo erru sentimenduak sor ditzake emakumeengan. Aldaketak nahasmen, kontradikzio edo min sorburu irits daitezke ere. Hau dela eta, emakume guztiei eskatuko nieke.....

EGUNEROKO BIZITZAN GURE GENERO IDENTITATEA LANTZEAREN ALDEKO APUS-TUA EGITEA. AZKEN BATEN GERORA BEGIRA, GU GARA UZTEN DUGUN SEXU-GENERU SISTEMAREN ERANTZULE.


Ohiana Larringan

Argitaralpen honen edizioako laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

*fundazioa
fundación*



OTZETA jatetxea

**Aranburuzabala kalean
ireki berria**

Tel. 943 71 55 07

.....
UDAKO PROGRAMAK

- Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

.....
UDAKO PROGRAMAK

- Diputazioak antolatutako udako egonaldiak, 14-17 urte artekoentzat. Ingeles edo frantses egonaldiak; ur ekintzak Almerian, Valentzian; kirol ekintzak Burgosen, Huescan; ingurugiro ekintzak Avilan, hipika Toledon; zeharkaldia bizikletaz Segovian... Aurreizen emate epea: maiatzaren 10etik maiatzaren 18a arte.

.....
BEKAK

- Gipuzkoako Diputazioak, kultura eta gazteria alorrean, urteroko dirulaguntzak jasotzeko deia egin du:

- Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza arloetan espezializazio ikasketak egiteko bekak. Epea: maiatzak 15.

Ikus arteetako eta literatur sorkuntza eta promozioa laguntzeko bekak. "Nikanor Zabaleta" musika beka. Epea: maiatzak 15.

Pintura eta eskultura alorrean zaharberrikuntzako lanak Artelekun egiteko dirulaguntzak. Epea: maiatzak 15.

Arte arloko iraupen laburreko jardueretan parte hartzeko laguntzak. Epea: ekainak 15.

.....
LANA

- Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik.

.....
IKASTAROAK

- Arrasateko Udaleko Gazteria Zerbitzuak, Literatura Ikastaroa antolatu du "idazketa literarioaren lehen pausuak". Maiatzaren 4an hasi eta ekainaren 1era arte, astelehen eta ostegunetan, arratseko 7etatik 9etara, Monterronen. Matrikula, 3.000 pta/2.000pta ikasle edo langabeentzat.

- Ohiulari Klown taldearen eskutik, antzerki-klown ikastaroa. Maiatzaren 6tik San Juanak arte, larunbata goizetan, 10etatik 13.30ak arte, Arrasate Musikalen. Matrikula 3.000pta/2.000 ikasle eta langabeentzat.

- Arrasateko Udaleko Emakume Sailak antolatua, autoestima ikastaroa, Pepa Bojoren eskutik. Asteazkenetan, 5.30etatik 7.30etara, apirilaren 11an hasi eta ekainak 11 arte.

- EHU-UPVk urtero antolatzen dituen Udako Ikastaroak. Izen emate epea: maiatzak 3an hasi eta plazak bete arte.

.....
LEHIAKETAK

- Zumarragako Udalak, bertako festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 12.

- Gasteizko Udazkeneko Antzerki Jaialdia iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Epea: ekainak 1.

- Arrasateko Udalak, argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo lema, "Gazteak eta arrazakeria", zuri-beltzean edo koloretan, ehinez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 11.

- "Ignazio Aldekoa" ipuin lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak, euskaraz edo gaztelaniaz, 12-25 orrialde bitarteko luzeeran idatziak. Epea: irailak 8.

Zuzenketa


Aurreko zenbakian kaleko iritzien atalean hiru argazki oker agertu ziren.

Ondo egoteko horrela behar zuen:

Goian erdian: Karmele Iglesias

Behean ezkerrean: Mertxe Armendariz

Behean erdian: Irazkonde Diaz de Gereñu



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-714688
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-714688
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112



1947. urteko San Pedro hirugarrenean ateratako argazkia ekarri dugu honako honetan. Txaranga atzean dutela, ez zuten animaziorik falta.

Argazkia eta informazioa: Rosita Uribarren



Musakola Auzoa, z/b 20500 ARRASATE
Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 Faxe: 943 79 21 25



Udalaitz, S.L.

Zer meritu dauka horrelako auto batek 5 urteko garantia izateak?



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozatzen da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatzeko-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatu dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

Nissan Primera Berria. Bete-bete autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uharteetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000



Klimatizagailu berria



GIDATU ETA GOZATU

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zigarrola kalea, 1 • Tel.: 943 71 20 02 • 20500 ARRASATE